



berdindu!

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BERDINDUREN KOMUNIKATUA 2022KO DESPATOLOGIZAZIO TRANSAREN NAZIOARTEKO EGUNAGATIK.

Azken urte hauetan ikusi dugu trans kolektiboaren aurkako hitzezko erasoen eta gorroto-diskurtsoen etengabeko gorakada gertatu dela, eta agerian utzi du gure gizartean aukera txikienean transfobia azalaratzen dela.

Gaur egun ere, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak transexualitateaz hitz egiten jarraitzen du genero-inkongruentzia gisa, nahiz eta, 2018an, OMEk aitortu transexualitatea ez dela gaixotasun edo patologia mental bat, ezta apeta iragankor bat ere, giza sexu-aniztasunaren beste adibide bat baizik.

Horregatik guztiagatik, aurrean ere, Berdindu Zerbitzu Publikoak dei egin nahi dio gizarte osoari lanean jarrai dezan gorroto-diskurtsoak, transexualek beren egunerokoan jasaten dituzten eraso, diskriminazio eta zailtasun guztiak ezabatzeko eta desagerrarazteko. Gizarte justuagoa eta errespetuan oinarritutakoa eraikitzen jarraitu ahal izateko, guztion artean; gizarte bat, non diskurtso eta diskriminazio horiek ezin izango diren gizarte horren parte izan eta gertatzen direnean salatuko diren.